

# DOROTEA


Testua eta irudiak: : Amaia Egidazu



XV. ETXEPARE SARIA (2021)

ISBN 978-84-9172-240-3. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 28 or. 14 €



«Doroteak etxea zeukan euliz betea.  
Gogaitu zen Dorotea,  
ezinezkoa baitzen etxean lasai egotea.  
Baina, nola lortu euli guztiak desagertzea?[...]»

Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen ditu **Dorotea** albumak: hona hemen amatxi, bakardadean, eguneroko deserotasunen eta eragozpenen aurrean, ausart, konponbide bila. Testuaren aldetik, paralelismoak, segidak, errimak eskaintzen dizkigu, oihartzuna landuz, josta gaitzen; ilustrazioaren aldetik, bihurrikeria, konplizitate dotorea, iradokizuna eskaintzen digu, iragana oraineratuz eta aldarrikatuz, diberti gaitzen.

Album petoa, oreka betekoa, istorioak eta ilustrazioak aldi berean irakur ditzagun irriz eta irrikaz.

- **Gaia:** norberaren erosotasunaren eta beste izaki bizidunetikiko errespetuaren arteko oreka.
- **Adin egokia:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** kontakizun errimatua, emakume ekintzailea, umorea, naturaren kate trofikoak, ipuin tradizionalen erreferentziak, *collage* teknikaren erabilera.

**Amaia Egidazu Arrube (Durango, 1981)** berrizarrak umetatik izan du naturarekiko begirunea, eta zaletasun horrek Euskal Herriko Unibertsitatean Biologia ikasketak aukeratzera eraman zuen.

Ingurumena eta energia berriztagarrien sektorean lan jarduera desberdinetan aritu ondoren, haurren pedagogiarekiko interesak arlo horretako formakuntzetan murgiltzera bultzatu zuen.

Egun, amatasuna eta haur txikien bidelagun lana uztartzen ditu eskola aktibo batean.

Tamara Chubarovsky-ren errima-sortak eta ipuinak euskarara itzuli eta moldatu ditu. Txikienezako ipuin kontaketa ere dihardu aukera duenetan.

Gaztetatik ditu gustuko arte plastikoak eta sormen-lanak. *Dorotea* da idazten eta ilustratzen duen lehen liburua (2021).

[<https://www.instagram.com/amaia.egidazu/>]

<http://www.etxeparesaria.eus/>



Tel.: 948 326 535 / [soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com)  
[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)

